

Euskadiko Futbol Federazioak (EFF), jokalariai aurkeztutako agiriari emandako erantzunen inguruan hausnarketa egin ondoren, berriro ere zuengana zuzentzen gara zehaztapen gehiago eman asmoz. Baina, ezer baino lehen, gure haserrea azaldu nahi dizuegu, azken bileran hitzartu genuena ez duzuela bete uste dugulako. Beste behin ere, bileran izandako jokalarien izenak eta bileraren edukia (nahiz eta ez oso modu zuzenean) prentsan agertu dira.

Albiste hedabideetara nondik iritsi den ziur jakiterik lortu ez badugu ere, zuetakoren bat dela uste dugu emandako hitza bete ez duena. Ez zaigu oso jarrera heldua iruditzen zuen aldetik, batez ere honelako gai eta une delikatu gaudela. Ez dugu onartuko horrelako beste azpi-jokorik, ez eta gure izenen erabilera interesaturik. Espero dugu, beraz, ohar honetatik aurrera horrelakorik ez berriz gertatzea.

Hemen azaltzen diren puntu guztiak, batzuk oso sinbolikoak iruditu arren, arduraz eta serio lantzeko eskatzen dizuegu. Bileretan behin eta berriz mahai gainean izan ditugun gaiak dira, eta bidean aurrera egin dezagun, publikoki ardurak hartzeko eskatzen dizuegu. Zuen asmoak benetakoak direla jakiteko, ez zaigu beste biderik geratzen. Ez dugu hitz hutsezko borondate ederrik onartzen. Bada garaia gure selekzioaren ofizialtasunaren bidean genezakeena egiten serio has gaitezten. Horrela, bidea urratuz, joango gara ikusten non dauden ezintasunaren mugak, eta muga horiekin topo egitean pentsatuko dugu horiek gainditzen nola saiatu. Ez dugu adostasun sinboliko argazkitarakorik nahi, sinismenik gabeko bide lagunik ere ez, ofizialtasunaren bideko lekukoa serio hartuko duen federazioa nahi dugu, jokalariai amets horrek elkartzen baikaitu. Gurekin batera indar egingo duen federazioa sentitu nahi dugu, bestela, elkar lan honi ez diogu arnas luzea ikusten.

Baldintzak:

1.- “Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa ordezkaten dituen selekzioa da gure selekzioa. Ez gara Espainiako selekzio autonomiko bat. Nazio izaera duen selekzioa da gurea eta ofizialtasuna behar dugu, munduaren aurrean gure Herria ere ordezkatu egon dadin”.

Goian aipatzen dena partida aurkezpen guztietan EFFk bere egitea eskatzen dugu, publikoki. Hori zabaltzeko pertsona egokiena haren goreneko ordezkaria (presidentea) dela uste dugu. Gustatuko litzaiguke, bere ahotik horretan sinesten duela entzutea, bileretan entzun ditugun kontuak benetakoak direla jakiteko. Halere, bide hori egokiena dela uste ez baduzue, prest gaude prozedura adosteko. Baina, beti ere, Federazioak selekzioaren izaeraren inguruan duen ikuspegia (goian aipatzen dena) garbi azaldu beharko du publikoki jendartearen aurrean. Ez dugu mezu bikoitz edo nahasgarri onartuko. EFFren eta jokalarion ikuspegia berdinak direla somatu nahi genuke, behingoz. Hori da gure nahia.

Honetaz gain, aurkezpenerako karteletan Euskal Herriko mapa modu ikusgarrian azaltzea eskatzen dugu. Selekzioaz hitz egitean 7 euskal herrialdez osaturiko selekzioaz ari garela garbi gera dadin.

2.- Partida guztien aurretik, zelaian argazkia aterako dugu jokalaria eta EFFko kideek pankarta batekin. Bertan “Nazio bat gara: ofizialtasuna!” jarriko du, eta Euskal Herriko mapa azalduko da.

Behin baino gehiagotan esan izan zaigu EFFtik jokalariei pankartarik ez ateratzeko. Eta, aurrerantzean arazorik egon ez dadin egin dugu eskaera hori.

Argi eta garbi adierazi nahi dugu zeren ofizialtasuna nahi eta behar dugun, eta zergaitik. Zazpi euskal lurraldeetako jokalariz osatutako selekzioaren ofizialtasuna da nahi duguna, behar duguna, nazio bat garelako. Eta mezu hori zelaian bertan ere argi azaltzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

3.- Euskadiko Futbol Federakundea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatutako federazioa izanik ere, selekzioa 7 lurraldetara zabaltzen denez: Nafarroa eta Iparraldeari begira ere lan egiten hastea eskatzen dugu. Honetarako, herrialde horietako federazio eta klubekin elkarlan asmoak eta herrialde horietan partidak antolatzeko beharrezko diren pausuak ematen hasiko dela publikoki adieraziko ditu EFFk (kasu honetan ere, hori zabaltzeko pertsonarik egokiena presidentea dela uste dugu, baina prest gaude prozedura adosteko). Halaber, publikoki onartzea eskatzen dugu, partiden antolaketa hori EAEko federazioaren eskumenetik kanpo geratzen bada, beste antolaketa modu bat beharko lukeela gure selekzioak aurrerantzean.

Guk ez dizuegu ezinezko ezer eskatzen. Borondate kontua da. Dituzuen asmoen berri eta aurrera begirako ikuspegia eta lan-ildoak publikoki garbi azaltzea baino ez dugu eskatzen. Guk, ez dizuegu epe motzean Nafarroan edo Iparraldean partida bat antolatuko duzuela publikoki ziurtatzeko eskatzen (badakigu, adibidez, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa barnebiltzen dituen futbol federaziorik ez dagoela, gaur egun). Baina, “zazpi lurraldeetako jokalaria hautatzeko irizpidea” mantentzen duzuela aipatzen duzuen era berean, onartu beharko zenukete bi lurralde horietan ere Euskal Herriko Selekzioarekin jokatzeko aukera izan beharko genukeela. Eta etorkizunean hori egia bilaka dadin, bide hori egiten hasi gaitezen EFFk bere eskuetan dituen bitarteko guztiak jartzeko eskatzen dizuegu.

EFF prest al dago, esate baterako, nafar jokalariek Nafarroan Euskal Herriko Selekzioarekin partida jokatzeko duten eskubidea publikoki aldarrikatu eta bide horretan lan egiteko konpromezua hartzeko? Jokalari nafar batek Euskal Herriko Selekzioan jokatzeko aukera baldin badu, naturalki, Euskal Herriko Selekzioak Nafarroan ere jokatzeko aukera izan beharko luke. Eta Iparraldean berdin.

4.- EFFak FIFA data guztiak gure selekzioari ere onartzeko eskaera egitea eskatzen dugu. Hauen erantzuna ezezkoa den kasuan EFFk (kasu honetan ere presidentea litzateke egokiena gure ustez, baina prozedura

adosteko prest gaude) publikoki hau salatu egingo du, honetarako antolatutako prentsaurreko baten bidez. Garbi adieraziko du bertan, mugak nondik datozen, eta EFFaren helburua 7 lurraldeetako euskal selekzioaren ofizialtasuna dela.

FIFA data guztiak eskatzeak badu zentzua. Gainontzeko selekzioek data horietan jokatzeko aukera dutela jakinik, nazio selekzio bat garela aldarrikatzeko beste modu bat, beste bide bat da guri ere FIFA datak onartzeko eskatzearena. Beste kontu bat da, gero data horiek erabiliko liritekeen edo ez.

Eta, erantzuna ezezkoa den kasuan “hori jendarteratu” egingo duzuela erantzun diguzue. Nola egingo duzuen jakin nahi dugu, jendarteak egoera zein den jakitea garrantzitsua dela uste dugulako. Horretarako antolatutako prentsaurreko baten bidez egitea iruditzen zaigu modurik eraginkorrena. Eta garbi adierazi bertan mugak nondik datozen eta EFFren helburua 7 lurraldeetako euskal selekzioaren ofizialtasuna dela.

5.- Aspalditxoan hitzez sarri aipatu bai, baina pausurik eman ez den “Nazioarteko Txapelketa”ren antolaketa martxan jartzea eskatzen dizuegu. Helburua: “Nazio bat gara eta ofizialtasuna behar dugu” esatea mundua zehar.

EFFri, urtean partida bat baino gehiago jokatuaz, “Nazioarteko Txapelketa” antolatzeko asmoa duela publikoki aitortzeko eskatzen diogu. Baina aitormen hutsa ez dugu askietsiko, bide hau urgentziaz urratu beharrekoa dela baiteritzogu. Beraz, 6 hilabetetako epean gure selekzioarentzat egutegi ofizial bat aurkezteko konpromezua har dezala EFFk . Bide honetan benetako sinismena duzuela jakin nahi dugu. Urteak daramatzagu kontu hauetaz hizketan, eta horregaitik, oraingoan epe jakin baten barruan zerbait publikoki aurkeztuko duzuenaren ziurtasuna nahi dugu.

6.- Lehen ere esan genuen: gure selekzioa Euskal Herriko selekzioa da. Hautsak harrotu zituen gai honek, hedabide asko gaiaren mamia nahasten eta eztabaida behar ez zen lekuetara eramaten saiatu zirelako, besteak beste. Orain, berriro diogu: Euskal Herria da gure ustez selekzioa izendatzeko izenik egokiena. Baina, aurrera egiteko borondatea dugu. Garbi utzi nahi dugu beste behin ere selekzioaren izenak baino askoz gehiago kezkatzen gaituela selekzioaren izanak. Eta horregatik, eta betiere aurreko puntuetan adostasuna lortzen badugu, honakoa onartzeko prest gaude: *Euskal Selektzioa* terminoa erabiltzea partiden aurkezpenetan.

Baldin eta aurreko 6 baldintzentatik zerbait onartzen ez baduzue, edo etorkizunerako proposatutako lan ildoak lantzeko asmorik ez baduzue, eskertuko genizueke hala adieraztea eta azaltzea, bai guri, bai euskal jendarteari ere, nahasmenik egon ez dadin, ez eta joko bikoitzik ere. Azken

batean, zintzotasunez jokatzeko baino ez dugu eskatzen. Gurea ez da konfrontazio jarrera bat. Gu, Euskal Herriko futbol selekzio ofiziala lortzeko bidean eraginkortasuna bilatzen dugun euskal futbolariak gara. Munduko beste edozein futbol jokalarik bezala, zein taldetan jokatu erabakitzeke eskubidea baino ez dugu eskatzen. Inposiziorik gabe, bakoitzak bere izatearekin koherentzian. Eskatzen dizueguna da zuek ere, gure maila berean, helburu beraren bila zuen esku dagoen guztia egitea, besterik ez. Eta gehiago egiten ez baduzue, garbi gera dadila zergatik ez duzuen egiten: saiatuta gehiago ezin duzuelako ala saiatu nahi ez duzuelako.

Esan bezala, euskal futbol jokalariak, jarrera arduasua izanik, prest gaude partida jokatu dedin akordio batera iristeko eta etorkizunean elkarlanean aritzeko. Baina beti ere, akordioa zertan datzan eta etorkizuneko lan ildoak zeintzuk diren garbi adieraziz euskal jendarteari.

Elkar ulertuko dugulakoan, zuen erantzunaren zain geratzen gara.

2010ko azaroa
Euskal Herriko Futbolariak